



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 10. ARDATZA. HERRITARREK ERABAKI HARTZEAN PARTE HARTZEA

#### 10.1 HELBURU NAGUSIAK

- Herritarrek duten protagonismoa onartzea, beren premiak definitzerakoan eta etxebizitza-politika publikoak egiterakoan subjektu aktibo gisa.
- Ordezkatutako diskurtsoen aniztasun handiagoa lortzea eta ahalik eta adostasun handiena lortzea, premia bereziak uztartuz.
- Herritarrak Sailaren etxebizitza-politikekin sentsibilizatzea eta arduratzea, jardunen eraginkortasuna handituz.

#### 10.2 JARDUN ILDOAK

##### **2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren etxebizitza-politiken plangintza estrategikoan herritarren parte-hartzearen ikuspegi osoa edukitzea**

- Eusko Jaurlaritzak uste du herritarren parte-hartzea balio handiko tresna dela EAEko etxebizitza-politikak diseinatzeko, eta bere plangintza estrategikoan mekanismo parte-hartzaileagoak lortu nahi ditu, herritarrei protagonismoa emateko eta tradizionalki erabakitzeko espazio publikoetan sarbide txikia izan duten pertsona edo kolektiboek diskurtsoak eta ekarpenak gaineratzeko.
- Ildo horretan, 2006-2009ko Planak herritarrei zuzendutako eta hiru mailatan antolatutako neurriak bultzatuko ditu: a) Diskurtso guztien bisualizazioa erraztea; b) informazioaren joan-etorri hobea eragingo duten solaseko espazioak bultzatzea, eta c) erabaki-espazio jakin batzuetara sartuz politika publikoetan eragiteko ahalmena ziurtatzea.
- Etxebizitza Bideratzeko Plan hau lantzea ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta beste erakundeen arteko komunikazio- eta informazio-kanalak handitzeko ahaleginaren adibide garbia da. Era berean, bere edukietan herritarren ekarpen asko biltzen ditu (horietako asko horretarako sortu zen web orrian jasotakoak dira), eta horiek lantzeko bilera eta elkarrizketa asko egin dira euskal gizarteko esparru askotako agenteekin.
- Formula ezberdinen bitartez (mintegiak, bilerak, komunikazio idatziak, eta abar) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak honako agente hauen lankidetzan izan du Etxebizitza Bideratzeko Plana lantzeko: EUDEL, Udalak eta EAEko etxebizitza udal sozietateak, AVSaren euskal atala, Foru Aldundiak, Euskadiko gazteriaren Kontseilua, Aurrezki Kutxak, EHU, Emakunde, Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa (HIRUKIDE), Euskadiko guraso bananduen Federazioa (KIDETZA), etorkinei laguntzeko GKEen euskal koordinakundea (Harresiak Apurtuz), Ijito Elkarteak, Cáritas, Down sindromearen Fundazioa, Arartekoa, kontsumitzaileen elkarteak, patronalak eta euskal sindikatuak, zenbait elkargo profesional (arkitektoak, aparejadoreak, ingeniariak, gizarte-



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

langileak, abokatuak, eta abar), HJAak eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.

### **Herritarren parte-gartzearen esparrua EAEko etxebizitza-politiken erabakiak hartzeko esparru estrategiko guztietara zabaltzea**

- Etxebizitza Bideratzeko Plan honentzat herritarren parte-hartzea jarduteko zeharkako ildo bat da, Planean lehendik aipatutako ardatz estrategiko denetan egon behar duena. Horrekin, adierazi nahi da Eusko Jaurlaritzak epe ertainean konpromisoa hartzen duela herritarren parte-hartzea EAEko etxebizitza-politiken erabakiak hartzeko esparru estrategiko denetan gauzatzeko.
- Ildo honi jarraituz, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak jarduteko zenbait lehentasunezko esparru identifikatzen ditu, parte-hartzeko mekanismo edo prozesuak martxan jartzeko bereziki egokiak.
- **Etxebizitza babestuaren sustapenean** herritarren parte-hartzerako elementuak erabiliko dira sustapenen eta etxebizitzaren diseinuan, Intxaurren ondoren eta Boluetan garatutakoak bezalako esperientziei estaldura handiagoa emanez.
- **Zuzkidura-alojamenduen** irudiak bereziki egokia dirudi Sailaren eta bere sozietateen sustapenen diseinuan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Zuzkidura-alojamenduek diseinuan malgutasun handiagoa dute, eta esperientzia berritzailearen kutsua dute (eta beraz, babes publiko etxebizitzaren sustapen tradizionaletik urrun daude), ezaugarri berezi horiek interes berezia ematen diotelarik 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren testuinguruan herritarren parte-gartzearen aplikazio-esparru gisa.
- Alojamentu horien hartzaileek, batez ere gazteek eta adinekoek, zuzenean ukitzen dituzten gaiak dagokienez (alojamenduen azalera, espazio partekatuen diseinua, eta abar) sustapen horien arduradunei bere komentarioak egiteko aukera izango dute. Era berean, bidezko diren parte-hartzeko prozedurak gaituko dira zona horietako bizilagunek zuzkidura-alojamendu horien sustapenerako kokapen horiek erabiltzeari buruz duten iritzia jasatzeko.
- **Hiri-eraberritzeko** eragiketetan ere herritarren parte-hartzea sustatuko da, zuzenean inplikaturik dauden pertsonen iritzia jasoz, baita auzokideen eta herritar guztien iritzia ere. Parte-hartzeko prozesuen diseinua bereziki garrantzitsua da birgaitze integratuko areetan eta eremu degradatuetan, prozesu horiek area horietako gizarte-susperketa errazten dutelako eta gizarteratzeko jardunen kudeaketa osoa ahalbidetzen dutelako.
- **Etxebizitza-eraikinen birgaitzearen eta mantentzearen** atalean, ezinbestekoa da auzo-komunitateen parte-hartzea, birgaitze-obren agente eragile gisa, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen jasotzaile gisa, eta Eraikinen Liburuan ezarritako betebeharrak betetzearen erantzule gisa. Beste hainbeste esan daiteke ingurumen-iraunkortasunerako eta energia aurrezteko elementuak (panel fotovoltaikoak, galdara komunak, eta abar) dituzten etxebizitza babestuko eraikinen sustapen-politikei dagokienez, parte-hartzerako tresnek bizilagunek sustapenaren diseinutik aurrera paper aktiboa izan dezaten ahalbidetzen dutelako, eta ondoren komunitate horiek



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

ekipamenduen erabilera egokiaren eta mantentzearen aldeko jarrera azaltzen dutelako.

- **Alokairuko etxebizitza babestuak** jarduteko esparru garrantzitsua eskaintzen du, parte-hartzerako tresnen diseinuak maizterren gizarteratzea errazten duelako eta, besteak beste, denon artean elkarbizitzarako arauak ezartzeko aukera ematen dielako.
- Azkenik, **autonomia galdu duten pertsonen** premia espezifikoen arreta (adibidez, ezintasunak dituztenak edo adinekoak) jardun-esparru egokia da irisgarritasunari, oztopo arkitektonikoak ezabatzeari edo ezintasunak dituzten pertsonen erreserbatutako etxebizitzaren aprobetxamendu hobeari buruzko irizpideak definitu eta neurriak proposatzeko.
- Aipatutako esparruen barruan, 2006-2009ko Planak arreta berezia eskaini nahi die **ekintza positiboko politiken helburutzat identifikatutako kolektibo**ei, 9. Ardatzean adierazi den bezala. Etxebizitzaren alorreko parte-hartze prozesuen diseinuan eta gauzatzean protagonismoa emateak adierazitako helburuak betetzen lagunduko du.
- Maila operatiboan, Herritarren Parte-hartzerako Zuzendaritzak gidatuko duen lan-talde egonkor bat sortzea proposatzen da, honako zeregin honekin: a) Herritarren Parte-hartzerako prestakuntza- eta trebakuntza-plan bat definitu eta martxan jartzea, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko eta bere sozietate publikoetako langileei zuzenduta; b) etxebizitzaren alorrean parte-hartzeko proiektuak egin dituzten beste erakunde batzuekin esperientzien trukea antolatzea; c) esku-hartzeko aukerak hautatzea eta jarraibide metodologikoak eskaintzea; d) garatutako prozesuen jarraipena eta ebaluazioa antolatzea.

## Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrian proposatzen diren herritarren parte-hartzerako tresnak biltzea

- Lege honen ustez hiriaren diseinuak, hirigintza-funtzioak, interes publikoa ukitzen du eta herritarren bizi-kalitatean eta ongizatean zuzeneko eragina du. Beraz, interes partikularrak alde batera utziz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak oinarritzat hartzen du lurzoruaren okupazio-estrategia, udalerraren erabilerean zonakatzea, eta interes orokorraren zerbitzurako azpiegitura, zuzkidura eta ekipamenduak behar bezala kokatzea herritarren parte-hartzeari zabalik egon beharreko gai publikoak direla, eta Legeak bide horri ekiteko lehen urrats interesgarriak eskaintzen ditu.
- Era berean, Legeak aurreikusten du 20.000 biztanletik gorako udalerriek Planeamenduko Aholkularitza Kontseilu bat eratu behar dutela elkarrean parte-hartzearekin. Organo horrek hirigintza-espeditente berri ematen du nahitaez. Era berean, Plan Orokor baten lehen formulazio edo berrikuspenak bere dokumentazioaren barruan Herritarrek Parte-hartzeko Programa bat gaineratu beharko du, eduki nagusien berri emateko.
- Gainera, hirigintza-dokumentazio guztiaren garapenean informazio publikorako eskema bat finkatzen du, eta hirigintza-hitzarmenak eta alegazioak jendaurrean erakusten dira. Proposamen horiek guztiak, EAEko Udal gehienek



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

bere gain hartu duten 21. Tokiko Agendan gomendatzen diren estrategiekin zuzenean lotuta daude.

- Legeak era berean aukera ematen du Udalek herri-kontsulta bat egiteko edozein gai eztabaidagarri buruz, toki araubideko oinarrizko legeriaren arabera.
- Azkenik, legeak **EAEko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea** eratzen du, gai horietan interesatuta dauden agenteen topagune gisa. Planak topagune horren osaera eta jarduera garatuko ditu, eta gizarte-elkarteen eta pertsona eskatzaileen zeregina lehentasunezkoa izango da.

## Herritarren parte-hartzerako esperientzia pilotuak garatzea etxebizitza-politikan

- Orain arte, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez zenbait neurri gauzatu ditu herritarrekin informazio gehiago trukatzeko. Era berean, inkesta asko egin ditu herritarrek etxebizitza-politikari buruz duten iritziak jasotzeko. Era berean, inkestak erabili dira Etxebideren erabiltzaileen, Sailaren eta VISESAren etxebizitza babestuen esleipendunen, Alokabideren sustapenen maizterren eta Bizigune programan parte hartzen duten jabe eta maizterren gogobetetzea ezagutzeko.
- Elkarreragin-maila pixka bat handiagoa da Sailaren eta Etxebideren web orrien kasuan, foroen eta beste tresna batzuen bitartez zuzeneko kanala eskaintzen dutelako etxebizitza-politiken arduradunekin komunikatzeko. Ildo horretan, proposatzen da informazioaren teknologia berriak erabiltzea lankidetzarako gizarte-sare egonkor bat online sortzeko, Etxebideren ataria erabiliz. Espazio birtual berri hori parte-hartzea sustatzeko eta martxan jartzen diren parte-hartzerako prozesu osoak laguntzeko tresna izango da.
- Etxebizitza Bideratzeko Plan honek herritarren parte-hartzerako formula aurreratuetarantz urrats bat egin nahi du, informazio-funtzio soila gaindituz eta kontsulta-itxurako prozesuak bultzatuz (hausnarketaren eta eztabaida kolektiboaren bitartez) baita erabakitze prozesuak ere, eragileen artean adostasuna bilatuz. Horretarako, zenbait esperientzia pilotu bultzatuko dira, lehen aipatutako jarduteko lehentasunezko esparruen barruan hautatuz. Esparru horretan, herri-kontsultak ere egingo dira Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gidatzen dituen garrantzi handiko jardunetan.